

**FRAISKOZURI PLAZAKO ISURKETAK SANEAMENDU-SARE
OROKORRERA LOTZEKO HIRUGARREN FASEKO LANAK EGITEKO
BALDINTZA ADMINISTRATIBO PARTIKULARREN PLEGUA**

1. Kontratuaren xedea

Kontratuaren xedea da Fraiskozuri plazako isurketak saneamendu-sare orokorrera lotzeko hirugarren faseko lanak egitea, “Sestra Ingenieria y Arquitectura SL”k egindako proiektu teknikoaren arabera.

2. Kontratazio prozedura

Kontratazio-prozedura irekia da.

3. Obraren aurrekontua eta diru-izendapena

Kontrata bidez obra egiteko aurrekontua 92.945,55 eurokoa da (%21ko BEZ barne).

Espreski adierazten da kontratuak administrazioari sortarazten dizkion betebeharrak ekonomikoak betetzeko adinako diru-izendapena badagoela.

Lan honen finantziaketa 2017. urteko udal aurrekontuaren kontura egingo da (0800.627.161.00.02 partidatik).

4. Lehiaketan parte hartzeko aurkeztu beharreko dokumentazioa

Dokumentazioa sobre nagusi itxi baten barruan aurkeztuko da eta, sobrearen kanpoaldean, enpresa lizitatzaileraren izena eta ondorengo inskripzioa agertuko dira: “Fraiskozuri plazako isurketak saneamendu-sare orokorrera lotzeko hirugarren faseko lanak egitea”.

Sobre nagusiaren barruan, berriz, beste hiru sobre joango dira, behar bezala itxita. Sobreok kanpoan ondorengo inskripzioak izango dituzte:

- 1 sobre: Dokumentazio Tekniko-administratiboa.
- 2 sobre: Dokumentazio Teknikoa
- 3 sobre: Dokumentazio Ekonomikoa

Hiru sobre horien barruan, berriz, ondorengo agiriak sartu beharko dira:

- 1 kartazala

- 1) Enpresariak nortasun juridikoa duela egiaztatzen duen agiria eta, behar balitz, zer ordezkaritza duen adieraziko duena (enpresaren sorrerako notario-akta, IFK eta botere notariala enpresa juridikoa izanez gero, eta NANA banakako enpresaria bada).
- 2) Azpikontratutako enpresen zerrenda, hala badagokio, azpikontratutzen diren gremioak eta lanak zeintzuk diren zehatz-mehatz azalduz.
- 3) Behin-behineko fidantza (Exekuzio-aurrekontuaren oinarri konputagarriaren %3a, hau da, 2.304,44 euro)
- 4) Kaudimen ekonomikoa eta finantzaketakoa, eta teknikoa kreditatzen du(t)en dokumentua edo dokumentuak. Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuaren 75. eta 76. artikuluetan, hurrenez hurren, jasotako moduetakoren batean egiaztatu beharko dira.
- 5) Harremanetarako telefonoa, fax-a eta/edo helbide elektronikoa.

Adjudikazio-hartzaile ez diren enpresa lizitatzailerik, behin kontratua adjudikatu ondoren eta errekurtsioak tartekatzeke epea errekurtsorik gabe iragan ondoren, "1" kartazalean aurkeztutako dokumentazioa itzultzea eskatu ahal izango dute. Enpresa adjudikazio-hartzaileak ere eskatu ahal izango du, kontratuaren gauzatzea amaitu eta behin betiko bermea bueltatu ondoren. Agiri horiek haien esku geratzen direnetik bi hilabeteko epea igarotakoan, Bergarako Udalak suntsitu egin ahal izango du dokumentazioa, enpresek eraman ez dutenean.

- 2. kartazala

Lanen programa zehaztuko duen obraren ikerketa eta memoria teknikoa.

Eskaintzetan ondorengo atalak garatu beharko dira, eta horietan baloratuko dira analisiaren zuzentasuna eta xehetasun-maila, eta lizitatuko den kontratuarekiko egokitasuna:

-Proiektuaren analisia, bertan obraren zailtasun nagusienak antzemanda eta egin beharreko lanen planteamendu orokorra eginez (gehienez DIN A4 neurriko 4 orri, bi aldeetatik, gutxieneko letra-neurria 10, eta DIN A3 neurriko 2 plano).

-Lanak egingo diren gunearekiko hurbiltasun- eta ezagutza-maila (gehienez DIN A4ko 2 orri, bi aldeetatik, eta gutxieneko letra-neurria 10).

-Oinezkoen zirkulazioarekiko eraginak murrizteko azterlana (gehienez DIN A4ko bi orri, bi aldeetatik, gutxieneko letra-neurria 10, eta DIN A3ko bi plano).

-Proposatutako lanen programa eta programazioaren, Gantt diagramaren bidez. Eragiketa bakoitzari lotutako errendimenduaren justifikazioa, bertan jasoaz epe partzialak eta totalak eta eskaintako giza baliabideak eta baliabide materialak (gehienez DIN A3ko orrialde bat, alde bakarretik, —Gantt diagrama— eta DIN A4ko 3 orri, bi aldeetatik, eta gutxieneko letra-neurria 10).

Inoiz ez da sartuko gutunazal honetan proposamen ekonomikoa. Sartuz gero, lizitatzaillea prozedura honetatik kanpo geratuko da, eta ez da irekiko 3. kartazala.

- 3. kartazala (I. eranskinaren arabera)

Eskaintza ekonomikoa, I. eranskinean jasotako ereduari jarraituz, obra-unitate ezberdinen zerrenda banakatuarekin (obra-unitate ezberdinen zerrenda banakatuak aurkezten ez bada, unitate ezberdinen prezioak gutxitu egin beharko dira prezio osoa gutxitu den portzentaje berean). Ez da inolaz ere onartuko ereduari jarraitu gabe idatzitako proposamen ekonomikorik.

Inoiz ez da sartuko kartazal honetan 2. kartazalean sartu beharreko dokumentazioa. Dokumentu horietatik edozein sartuz gero 3. kartazalean, agiri horiek ez dira baloratuko.

Lizitatzaille bakoitzak proposamen bakar bat aurkeztu ahal izango du. Norbaitek bat baino gehiago aurkeztuko balu, denak atzera botako dira.

5. Proposamenak aurkeztea

Prozedura ireki honetan parte hartzeko proposamenak Bergarako Udaletxeko Erregistro Orokorrean aurkeztuko dira, deialdi honi buruzko iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatzen hasita 26 egun naturaleko epean, astelehenetik ostiralera, goizez, 09:00etatik 13:00etara bitartean. Epe hori larunbatean, igandean edo jaiegunean bukatuko balitz, hurrengo asteguneko 13:00etan bukatuko da.

Era berean, prozedura ireki hau Udalaren Kontratatzaillearen Profilean ere argitaratuko da, eta honako atari informatikoan edo webgunean eskuratu ahal izango dira pleguak: www.bergara.eus.

Administrazio Publikoen Kontratuen Legeko Erregelamendu Orokorreko 80. artikuluari jarraituz, proposamenak postaz ere aurkeztu ahal izango dira; horrelakoetan, enpresa lizitatzailleak Postetxean eskaintza zein egunetan sartu den justifikatu beharko du, eta kontratazio-organismoari eskaintza bidali dela jakinarazi beharko zaio faxez (943 77 91 56 zenbakira) klausula honetako lehenengo idatzian jasotako epea amaitu baino lehen. Bi baldintza horiek betetzen ez badira, proposamenak aurkezteko epea bukatu ondoren jasotako proposamenik ez da onartuko. Dena den, jarritako epea igaro eta hurrengo bost egun naturalak igaro ostean ez bada proposamena jaso, ez da inolaz ere onartuko.

Proposamenak isilpekoak izango dira, eta horiek aurkezterakoan enpresariak plegu honetan xedatutakoa oso-osorik onartzen duela ulertuko da.

6. Lehiaketan kontuan hartuko direnak

Administrazioak, lehiaketa hutsik laga ezean, abantaila gehien eskaintzen duenari adjudikatuko dio lehiaketa, derrigorrez eskaintza ekonomikoari bakarrik begiratu gabe.

Adjudikazioa egiteko irizpide orokor moduan, obrak ezarritako baldintzen eta epeen barruan eta egoki egingo direla ziurtatzeko ematen diren garantiak baloratuko dira orokorrean. Horrela, ondorengoak baloratuko dira:

- a) Prezioa..... 0 puntutik 55ra
 - b) Exekuzio-prozedura..... 0 puntutik 45ra
- a) Eskaintza ekonomikoa gehienez ere 55 punturekin baloratuko da. Fase honetan, automatikoki baloratu daitezkeen irizpideak (prezioa) balioetsiko dira, honako formula hauek aplikatuta:
- "Bi" berdina edo txikiagoa bada "A" baino, $P_i = 45 \times B_i / A$
 - "Bi" handiagoa bada A baino, $P_i = 45 + 10 \times (B_i - A) / (B_{\max} - A)$

Non:


Pi: "i" zenbakidun eskaintzaren puntuazioa

Bi: "i" zenbakidun eskaintzaren baja, portzentaje-unitateetan, lizitazio-aurrekontuarekiko (adib. baja % 10ekoa bada, $B_i = 10$)

Bmax: gehieneko baja, portzentaje-unitateetan

A: $0,75 \times B_{\text{med}}$

Bmed: eskaintzek egin duten batez besteko baja, portzentaje-unitateetan, lizitazio-aurrekontuarekiko.



b) Exekuzio-proposamena gehienez ere 45 punturekin baloratuko da, betiere plegu honetako 4. artikuluan, 2. kartazalaren atalean zehaztutakoaren arabera.

- Otik 25 puntura- Proiektuaren analisisa, bertan obraren zailtasun nagusienak antzemanda eta egin beharreko lanen planteamendu orokorra eginez (gehienez DIN A4 neurriko 4 orri, bi aldeetatik, gutxienerako letra-neurria 10, eta DIN A3 neurriko 2 plano).

-Proiektuaren analisi kritikoa: Otik 3 puntura bitartean.

-Zailtasun nagusienak antzematea: Otik 5 puntura bitartean.

-Lanen planteamendu orokorra: Otik 17 puntura bitartean.

- Otik 5 puntura- Lanak egingo diren gunearekiko hurbiltasun- eta ezagutza-maila (gehienez DIN A4ko 2 orri, bi aldeetatik, eta gutxienerako letra-neurria 10).

- Otik 5 puntura- Oinezkoen zirkulazioarekiko eraginak murrizteko azterlana (gehienez DIN A4ko bi orri, bi aldeetatik, gutxienerako letra-neurria 10, eta DIN A3ko bi plano).

- Otik 10 puntura- Proposatutako lanen programa eta programazioaren, Gantt diagramaren bidez. Eragiketa bakoitzari lotutako errendimenduaren justifikazioa, bertan jasoaz epe partzialak eta totalak eta eskaintako giza baliabideak eta baliabide materialak (gehienez

DIN A3ko orrialde bat, alde bakarretik, —Gantt diagrama— eta DIN A4ko 3 orri, bi aldeetatik, eta gutxieneko letra-neurria 10).

- Proposatutako lanen programa: 0tik 5 puntura bitartean.
- Errendimenduaren justifikazioa: 0tik 2 puntura bitartean.
- Lanen eta errendimenduen arteko koherentzia: 0tik 3 puntura bitartean.

7. Agiriak sailkatzea eta proposamenak irekitzea.

Proposamenak ireki aurretik, Mahaiak 1. kartazalean aurkeztatutako dokumentazioa sailkatuko du eta, horietan akats materialik antzeman ez gero, Mahaiak hiru laneguneko epea eman ahal izango du lizitatzailerak akats horiek zuzendu ditzen.

Kontratazio Mahaiak proposamenak Udaletxean irekiko ditu (San Martin Agirre plaza, 1), proposamenak aurkezteko epea bukatu eta laugarren lanegunean, 11:00etan.

Ekitaldi horretan, jendaurrean, soil-soilik onartutako proposamenei dagozkien 2. kartazalak irekiko dira. Ondoren, onartutako proposamenak Udaleko Zerbitzu Teknikoei bidaliko zaizkie; eta zerbitzu tekniko horiek, exekuzio-proiektu teknikoa idatzi duen enpresarekin batera, proposamenok baloratuko dituzte plegu honetan ezarritako balorazio-irizpideen arabera.

Hasierako deialdi honen mantentzea edo, kasu, aldaketak argitara emango dira Kontratatzailearen Profilean (www.bergara.eus), baina jakinarazpenetarako egoki jotzen den beste edozein bide ere erabili ahal izango da.

2. kartazalean jasotako eskaintzak baloratu ondoren, Kontratazio Mahaiak proposamenen 3. kartazala (eskaintza ekonomikoa) irekiko du, ekitaldi publikoan hau ere. Ekitaldi horretarako deialdia ere Kontratatzailearen Profilean (www.bergara.eus) argitaratuko da, baina jakinarazpenetarako egoki jotzen den beste edozein bide ere erabili ahal izango da.

Kontratazio mahaia honako hauek osatuko dute:

LEHENDAKARIA:

- Bergarako Udaleko alkate-lehendakaria, edo berak eskuordetzen duena.

MAHAIKIDEAK:

- Udaleko lehenengo alkateordea, edo berak eskuordetzen duena.
- Kontuhartzailea, edo berak eskuordetzen duena.
- Udaleko idazkaria, edo berak eskuordetzen duena.

IDAZKARIA:

- Udalbatzako idazkaria, edo berak eskuordetzen duena.

Mahaiaren bileretan parte hartu ahal izango dute Udalean erantzukizun teknikoa duten pertsonak, Mahaiak aholkularitza emateko hala eskatzen duenean. Mahaiak, halaber, bidezko iritzitako txosten tekniko guztiak ere eskatu ahal izango ditu.

8. Adjudikazioa

Adjudikazioa egiteko gehieneko epea 4 hilabetekoa izango da, proposamenak ireki diren hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Eskaintza abantailatsuen aurkeztu duen lizitatuari Kontratazio Organoak errekerimendua egingo dio hamar laneguneko epean honako jardun hauek egin ditzan, errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik kontatzen hasita:

1. Erantzukizun zibileko poliza bat egitea, gutxienez 300.000 eurokoa.
2. Behin betiko bermea ezartzea, hau da, adjudikazio-prezioaren % 5 (BEZ kanpo). Fidantza ezartzeko bidea Sektore Publikoaren Kontratuen Legearen Testu Bateratuak 96. artikuluan jasotzen dituenetik edozein izan daiteke.
3. IFKren kopia konpultsatua eta Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren azken ordainagiria aurkeztea.
Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren altak jarduera Bergaran garatzea ahalbidetu beharko du.
4. Haziendaren eta Gizarte Segurantzaren egiaztagiriak aurkeztea, enpresa bere ordainketetan egunean dagoela adierazten dutenak.
5. Udal honekiko betebeharrak egunean dagoela egiaztatzen duten agiriak aurkeztea.

Kontratazio Organoak errekerimendua egingo dio adjudikazio-hartzaileari kontratua bost eguneko epean sinatu dezan —errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik kontatzen hasita—, betiere lizitatuak adierazitako dokumentazioa aurkeztu badu eta dagokion behin betiko bermea jarri badu.

Eskaintzarik onuragarriena egin duen lizitatuak bete beharreko baldintzak bete ez eta kontratuaren adjudikazioa ez bazaio egin, beste deialdi bat egin baino lehen Administrazioak errekerimendu bat bidali ahal izango dio ondorengo lizitatuari —eskaintzak sailkaturik geratu diren hurrenkerari jarraituz beti—, eta 5 laneguneko epea emango dio lehen adierazitakoak betetzeko.

Adjudikazioa lau hilabeteko epean egingo da, proposamenak ireki eta biharamunetik kontatzen hasita. Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuaren 161.3 artikuluan aurreikusten denez, epe hori hamabost lanegunetz luzatuko da, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuaren 152.3 artikulua zehaztutako tramiteak jarraitu behar direnean, balio anormalak edo neurritz gainekoak dituzten eskaintzak antzematen diren kasuetan.

Eskaintza anormaltzat edo neurritz gainekotzat jotzeko, aurrez eskaintzaileari (edo eskaintzaileei, hala dagokionean) entzun egingo zaio, eta dagokion zerbitzuak aholkularitza teknikoaren eman beharko du.

Kasu horretan, lizitatuak emandako arazoak eta eskatutako txostenak aintzat hartuta, kontratazio-organismoak proposamenik onuragarriena egiten duen lizitatuari egingo dio adjudikazioa, baldin eta Administrazioaren esanetan lanak egoki egiteko gaitasuna badu; bestela, anormaltzat edo neurritz gainekotzat jotzen ez den proposamenaren alde egingo da adjudikazioa.

Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuaren 155.2 artikulua arabera, kontratua burutzeari edo jardunbide honi uko egiten bazaio, lizitazioak lizitatuari eragindako gastuak konpentsatzeko Administrazioak zehaztuko ditu gastuak, lizitatuari entzunaldia eman eta horiek gastuak justifikatu ondoren.

Kontratua gauzatzeko, sinatu egin beharko da adjudikazioaren jakinarazpenean adierazitako epean.

Adjudikazio-hartzailearen erruagatik kontratua formalizatu gabe geratzen bada, Udalak bertan behera utzi ahal izango du kontratua, interesdunari entzun eta gero, eta adjudikazio-hartzaileak eragindako kalte-galerak ordaindu beharko ditu.

9. Kontratuaren iraupena eta obrak egiteko epea

- 9.1 Kontratuaren iraupena lanen behin betiko adjudikazioa jakinarazten denetik hasi eta behin betiko fidantza itzultzen den artekoa izango da.
- 9.2 Obrak egiteko epea tokiaren egiaztapen-akta (zuinketa-akta) sinatzen denetik hasi eta 2 hilabetetan bukatuko da.
- 9.3 Obren tokiaren egiaztapena (zuinketa-akta) 15 eguneko epean egingo dute – kontratua sinatzen denetik aurrera– obrak egingo dituen enpresaren ordezkariak, obra-zuzendariak edo Bergarako Udalak izendatutako teknikariak. Obrak hasi aurretik, enpresa adjudikazio-hartzaileak lantokia irekitzeari buruzko jakinarazpena eta baliabide prebentiboaren izendapena aurkeztu beharko ditu udaletxean.
- 9.4 Adjudikazio-hartzaileak ordaindu beharko du lanaren iragarki-kartela egitearena. Kartel hori udal zerbitzu teknikoek ezarritako jarraibideen arabera egin beharko du.

10. Obrak egitea eta ikuskatzea

- 10.1 Obrak egiterakoan estu-estu jarraituko dira klausula administratibo partikularren plegu honetan eta plegu honen oinarri den proiektuan zehaztutakoak eta baita, proiektua interpretatuz, obra zuzendaritzak kontratistari idatziz eman diezazkion jarraibideak ere. Jarraibide horiek ere, derrigorrez betetzekoak izango dira.

- 10.2 Plegu honen bidez adjudikatzen diren obrak egitean inolako kalterik, okerrik edo istripurik izanez gero, kontratistarena izango da horien erantzukizuna. Erantzukizun hori garantia-epea betetakoan amaituko da.
- 10.3 Bergarako Udalak bere teknikarien bitartez lanen martxa ikuskatzeko eta zaintzeko ahalmena izango du.

11. Lanen ordainketa eta prezioak berrikustea

- 11.1 Obren adjudikazio-hartzaile den kontratistak benetan egin dituen obren ordainketa jasotzeko eskubidea du, aurrez adostutako prezioen arabera, hartarako onartu den proiektu teknikoari jarraituz eta organo kontratatzaileak baimendutako aldaketekin.
Horrela, kontratistak obren egiaztapenak egin beharko ditu eta, aurrez Hirigintza Batzorde Informatzaileak oniritzia emanda, organo aginpidedunaren onarpena beharko dute. Ordainketa ondorengo 30 egunetan egingo da.
- 11.2 Lanen exekuzioa kontratistaren gain eta kontura burutuko da, eta kontratistak ez du kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik izango obretan galera, matxura edo kalteak izaten baditu, ezinbesteko kasuetan izan ezean, eta beti ere bere arduragabekeriagatik ez izatekotan.
- 11.3 Ez da egongo prezio-eguneraketarik.

12. Garantia-epea eta fidantza itzultzea

Obrak bukatu ondoren, SPKL-aren Testu Bateratuaren 235. artikuluari jarraituaz, obra-hartzea izango da eta 12 hilabeteko epea egongo da azken onarpena emateko. Azken onarpena eman ondoren, ezarritako fidantza itzuliko da.

13. Administrazioaren prerrogatibak eta jurisdikzio aginpideduna

Sektore Publikoko Kontratuaren Legean jasotako mugen barruan eta betiere bertan ezartzen diren baldintza eta ondorioak kontutan izanik, kontratazio-organismoak eskumena du kontratu administratiboak interpretatzeko, kontratuok betetzean sortzen diren zalantzak argitzeko, interes publikoko arrazoiengatik horiek aldatzeko, eta kontratuei amaiera emateko eta amaiera horren eraginak zehazteko.

Erabaki horiek amaiera emango diote bide administratiboari, eta hartzen diren unetik bertatik bete beharrekoak izango dira.

Kasu horietan entzun egingo zaio kontratistari.

14. Zigorrak

Kontratistak, berari lepora dakizkiokeen arrazoiengatik, ezarritako epea baino beranduago burutu gabe baditu epe horretan egin beharreko lanak, Administrazioak bi

aukera izango ditu: kontratuari amaiera ematea, edo obrak burutu arte igarotzen den egun bakoitzeko 46,74 euroko diru-zigorra ezartzea.

Atzerapenagatiko zigorren guztizko zenbatekoak kontratuaren prezioaren 100eko 5en multiploren bat jotzen duen bakoitzean, kontratazio-organoak aukeran izango du kontratuari amaiera ematea, edo bestela, zigor gehiago ezarri eta egiten jarrai dezatela erabakitzea.

15. Segurtasun-neurriak

Kontratatik, laneko osasun eta segurtasuna bermatzeko, proiektuan jasotako neurriak eta, edozein kasutan ere, indarrean dauden arauak ezartzen dituzten neurriak hartu beharko ditu. Halaber, obra-zuzendaritzak ezarritako segurtasun-neurri guztiak hartu beharko ditu, beste inori kalterik ez eragiteko asmoz.

16. Azpikontratazioa

1. Enpresa kontratu-hartzaileak adostu ahal izango du beste hirugarren batzuekin prestazioaren zati bat egitearena, baina enpresa adjudikazio-hartzaileak hirugarren horiekin azpikontratatu ahal izango dituen prestazio partzialek ezingo dute obren %50a gainditu.

Azpikontratuak egitearena beti egongo da agindu beharreko betebeharren menpe, betiere Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuaren 227. artikulua 2. atalaren arabera.

2. Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuaren 227.2 artikulua ezarritako eginbeharrak bete ezean, artikulua bereko 3. eta 4. ataletan xedatutakoa izango da aplikagarri.

3. Enpresa kontratu-hartzaileak beste enpresa azpikontratatuari ordaintzerakoan, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuaren 228. artikulua xedatutakoari egokitu beharko zaizkio.

17. Araubide juridikoa

Baldintza-plegu honetan aurreikusi ez diren kasuetarako, ondorengo lege eta araudiak aplikatuko dira:

- Apirilaren 2ko 7/1985 Legea —Toki Jaurbideari buruzko Oinarriak arautzen dituen—; eta apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretua —Toki Jaurbideko arloan indarrean dauden Legezko Xedapenen Testu Bateratua onartzen duena—, betiere Sektore Publikoko Kontratuen Legearekin kontraesanik sortzen ez duenetan.
- Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratua, azaroaren 14ko 3/2011 Errege Dekretu Legegilearen bitartez onartua.
- Maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretua —urriaren 30eko Sektore Publikoko Kontratuen 30/2007 Legea zati batean garatzen duena—.

- Urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretua —Administrazio Publikoetako Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorra onartzen duena—.
- Halakorik ezean, zuzenbide administratiboko xedapenak izango dira arau eta, premiazkoa denean, zuzenbide pribatuko xedapenak.

18. Kontratua amaitzeko arrazoiak

Kontratua amaitzeko arrazoiak Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuaren 223. eta 237. artikuluetan azaltzen direnak izango dira.

19. Udaleko hizkuntza-irizpideak betetzea

Enpresa adjudikazio-hartzaileak Bergarako Udalak Euskararen Erabilera Sustatzeko Planean jasotako hizkuntza-irizpideak jarraitu beharko ditu; bereziki, hizkuntza paisaiako elementuei (errotulu, argibide, herritarrentzako ohar...) dagokienez.

Horrenbestez, errotuluak, oharrak, seinaleak eta gainerako komunikazio orokorrak euskaraz jarriko dira piktogramaz lagunduta, piktogramaren bitartez ulergarriak direnean. Piktograma bidez egin ezin direnean, euskaraz jarriko dira, mezuak ezagunak edo ulergarriak direnean: euskarazko eta gaztelaniazko grafia antzekoa... Aurreko bi kasuak ezinezkoak direnean, ele bietan (euskaraz eta gaztelaniaz) jarriko dira euskarari lehentasuna emanez, bai kokalekuaren aldetik eta bai neurriaren aldetik ere.

Halaber, euskarazko testuen egokitasuna zaindu beharko da eta horretarako Udaleko Euskara Zerbitzuaren aholkularitza eskatu ahal izango da.

Udalaren ohiko lan-hizkuntza euskara izanik, kontratatutako enpresaren eta udalaren arteko harreman administratiboak euskaraz bideratuko dira normalean, bai ahoz eta bai idatziz.

Udaleko Bulego Teknikoa eta, behar izanez gero, Euskara Zerbitzua arduratuko dira hizkuntza-irizpideon gaineko zehaztasunak azaltzeaz eta betetzearen jarraipena egiteaz.

20. Gizarte-izaerako baldintza bereziak betetzea

Kontratu honek bete egin beharko ditu indarrean dauden lege-, erregelamendu- eta hitzarmen-xedapen guztiak lan-arlokoak, gizarte-segurantzakoak eta laneko segurtasun eta osasunari buruzkoak, eta, bereziki, Gipuzkoako Eraikuntzaren eta Obra Publikoen Hitzarmen Kolektiboa –betiere uneoro Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratutako azken testuari dagokionean—.

Enpresa adjudikazio-hartzaileak lanak hasi baino lehen aurkeztu egin beharko du bertan parte hartuko duten langileen zerrenda, eta baita enpresa azpikontratatuei dagozkien kideen zerrenda ere; eta egiaztatu egin beharko dute Gipuzkoako Eraikuntzaren eta Obra Publikoen Hitzarmen Kolektiboaren menpe daudela.

I. ERANSKINA

Izen-abizenak: _____

Helbidea: _____

NAN zk.a: _____ (kopia erantsi da).

Honen izenean: _____

IFZ: _____ (enpresaren nortasun juridikoa eta ordezkapena egiaztatzen dut notaritzako aktarekin)

AZALTZEN DUT

LEHENENGOA: FRAISKOZURI PLAZAKO ISURKETAK SANEAMENDU-SARE OROKORRERA LOTZEKO HIRUGARREN FASEKO LANAK EGITEARI buruzko lizitazio honetako baldintza administratibo partikularren plegua eta proiektu teknikoa ezagutzen ditudala, eta bertako edukia onartu eta horien arabera gauzatzeko konpromisoa neure gain hartzen dut ondorengo prezioan: _____, gehi _____ (BEZari dagokiona) (letraz eta zenbakiz).

Halaber, ZINEZ AITORTZEN DUT:

- a) Eskaintzailea egunean dagoela bai zerga-betebeharretan eta baita Gizarte Segurantzakoetan ere.
- b) Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuaren 60. artikuluan kontratatzeke ezarritako debekuetatik bat bera ere ez duela, eta plegu hauen xedeko lanak burutzeko ahalmen juridikoa eta behar besteko bitartekoak dituela.
- c) Adjudikazio-hartzaile izanez gero, onartutako pleguen betebehar eta baldintza guztiak estu-estuan jarraituz burutuko dituela lanak.

(data eta eskaintzailearen sinadura)

PLIEGO DE CLÁUSULAS ADMINISTRATIVAS PARTICULARES PARA LA EJECUCIÓN DE LAS OBRAS DE LA TERCERA FASE DE CONEXIÓN DE LOS VERTIDOS DE LA PLAZA FRAISKOZURI A LA RED GENERAL DE SANEAMIENTO

1. Objeto del contrato

Constituye objeto del contrato la ejecución de las obras de la tercera fase de conexión de los vertidos de la plaza Fraiskozuri a la red general de saneamiento, de acuerdo con el proyecto técnico redactado por “Sestra Ingeniería y Arquitectura SL”.

2. Procedimiento de contratación

El procedimiento de contratación es abierto.

3. Presupuesto de la obra y consignación económica

El presupuesto de ejecución por contrata de esta obra asciende a 92.945,55 euros (21% IVA incluido).

Se señala expresamente que existe consignación suficiente para que la Administración pueda cubrir las obligaciones económicas que puedan derivarse del contrato.

La financiación de la presente obra correrá a cargo del presupuesto municipal del año 2017 (partida 0800.627.161.00.02).

4. Documentación a presentar para participar en la licitación

La documentación se presentará en sobre general cerrado, figurando en su exterior el nombre de la empresa licitadora y la inscripción " Ejecución de las obras de la tercera fase de conexión de los vertidos de la plaza Fraiskozuri a la red general de saneamiento”.

A su vez contendrá otros tres sobres, también perfectamente cerrados con los siguientes títulos:

- Sobre 1: Documentación Técnico-Administrativa
- Sobre 2: Documentación Técnica
- Sobre 3: Documentación Económica

En cada sobre se colocará la documentación que a continuación se detalla:

- Sobre 1

1. Acreditación de la personalidad jurídica del empresario y en su caso, su representación (acta notarial de constitución de la empresa, CIF y poder notarial si es empresa jurídica, y DNI si es empresario individual).
2. Relación de empresas subcontratistas, en su caso, con detalle de los gremios y trabajos que se subcontraten.
3. Constitución de fianza provisional (3% de la base imponible del presupuesto de ejecución, 2.304,44 euros).
4. El documento o documentos que acrediten la solvencia económica y financiera así como la solvencia técnica. Se deberán acreditar de cualquiera de los modos establecidos en los artículos 75 y 76 respectivamente del Texto Refundido de la Ley de Contratos del Sector Público.
5. Teléfono de contacto, fax y/o dirección electrónica.

Las empresas licitadoras que no hayan resultado adjudicatarias, una vez adjudicado el contrato y transcurridos los plazos para la interposición de recursos sin que se hayan interpuesto, podrán solicitar la devolución de la documentación aportada en este sobre "1". La empresa adjudicataria podrá solicitarla, así mismo, una vez finalizada la ejecución del contrato y devuelta la garantía definitiva. Transcurrido el plazo de dos meses desde que dicha documentación quede a su disposición, el Ayuntamiento de Bergara podrá destruir la documentación aportada por las empresas licitadoras y que no haya sido retirada.

- Sobre 2

Estudio de la obra y memoria técnica que determina el programa de trabajos.

Las ofertas deberán desarrollar los siguientes apartados, valorándose en los mismos la corrección y el grado de detalle del análisis, así como la adecuación al contrato objeto de licitación:

- Análisis del proyecto con la detección de las principales dificultades de la obra y planteamiento global de los trabajos a ejecutar (máximo 4 hojas DIN A4 por ambas caras, tamaño de letra mínimo 10, y 2 planos DIN A3)
- Grado de acercamiento y conocimiento del ámbito en el que se llevarán a cabo los trabajos (máximo 2 hojas DIN A4 por ambas caras, tamaño de letra mínimo 10)
- Estudio de reducción de afecciones a las circulaciones peatonales (máximo 2 hojas DIN A4 por ambas caras, tamaño de letra mínimo 10, y dos planos DIN A3)

- Programa de trabajos y programación propuesta mediante diagrama de Gantt. Justificación de los rendimientos asociados a cada operación, con los plazos parciales y totales y los medios humanos y materiales ofertados. (máximo 1 DIN A 3 en cara única (Diagrama de Gantt) y 3 hojas DIN A4 por ambas caras, tamaño de letra mínimo 10)

Nunca se deberá introducir en este sobre la proposición económica. En caso de hacerlo, la licitadora será excluida del procedimiento y no se abrirá el sobre 3.

- Sobre 3 (según Anexo I)

Oferta económica ajustada al modelo que se recoge en el anexo I, con relación detallada de las distintas unidades de obra (la no presentación del detalle desglosado de las diferentes unidades de obra implicará la reducción de las precios de las diferentes unidades en el mismo porcentaje en que se haya reducido el precio total). No se admitirá ninguna proposición económica que no haya sido redactado siguiendo el modelo indicado.

No se deberá introducir en este sobre la documentación correspondiente al sobre "2". En caso de introducir alguno de dichos documentos en el sobre "3", éstos no serán valorados.

Cada licitador/a podrá presentar una única proposición. En caso de presentar más de una, se retirarán todas.

5. Presentación de proposiciones

Las proposiciones para tomar parte en este procedimiento abierto se presentarán en el Registro General del Ayuntamiento de Bergara, de lunes a viernes, de 9:00 a 13:00 horas de la mañana, dentro del plazo de 26 días naturales contados a partir del día siguiente a la publicación del anuncio correspondiente en el Boletín Oficial de Gipuzkoa. En caso de que el plazo finalice en sábado, domingo o festivo, se entenderá prorrogado hasta el siguiente día hábil a las 13:00 horas.

Este procedimiento abierto se publicará asimismo en el Perfil de Contratante del Ayuntamiento, y se podrá acceder a sus pliegos desde el siguiente portal informático o sitio web: www.bergara.eus.

Conforme al artículo 80 del Reglamento General de la Ley de Contratos de las Administraciones Públicas, las proposiciones podrán ser presentadas así mismo por correo. En tal caso, la empresa licitadora deberá justificar la fecha de imposición del envío en la oficina de Correos y anunciar al órgano de contratación la remisión de la oferta mediante fax (en el número 943 77 91 56) antes de la finalización del plazo señalado en el párrafo primero de esta cláusula. Sin la concurrencia de ambos requisitos no será admitida la proposición si es recibida con posterioridad a la fecha de terminación del plazo de

presentación de proposiciones. Transcurridos, no obstante, cinco días naturales a partir de la fecha indicada sin haberse recibido la proposición, ésta no será admitida en ningún caso.

Las proposiciones serán secretas y su presentación implica la aceptación incondicional por parte del empresario de todo lo establecido en el presente pliego.

6. Aspectos que se valorarán en la licitación

La Administración, de no declarar desierta la licitación, adjudicará la proposición que estime más ventajosa, sin atender necesariamente al valor económico de la misma.

Como criterios básicos a tener en cuenta para realizar la adjudicación, se valorarán las garantías que, en conjunto, tiendan a asegurar la correcta ejecución de la obra en las condiciones y plazos establecidos. Así, se valorarán:


- a) Precio..... de 0 a 55 puntos
- b) Procedimiento de ejecución.... de 0 a 45 puntos

- a) La oferta económica se valorará en un máximo de 55 puntos. En esta fase se valorarán los criterios evaluables de forma automática (precio) mediante la aplicación de las siguientes fórmulas:

- Si "Bi" es menor o igual que A, $P_i = 45 \times B_i / A$
- Si Bi es mayor que A, $P_i = 45 + 10 \times (B_i - A) / (B_{max} - A)$

Donde:

- a. P_i : puntuación de la oferta n^oi
- b. B_i : baja en unidades porcentuales de la oferta n^o i respecto al presupuesto de licitación (p.e. 10% de baja, $B_i=10$)
- c. B_{max} : baja máxima en unidades porcentuales
- d. A : $0,75 \times B_{med}$
- e. B_{med} : baja media en unidades porcentuales realizada por las ofertas respecto al presupuesto de licitación.



b) Se valorará sobre un máximo de 45 puntos la propuesta de ejecución en los términos establecidos en el artículo 4 del presente pliego detallado en la referencia del sobre 2, desglosados del siguiente modo:

- De 0 a 25 puntos- Análisis del proyecto con la detección de las principales dificultades de la obra y planteamiento global de los trabajos a ejecutar (máximo 4 hojas DIN A4 por ambas caras, tamaño de letra mínimo 10, y 2 planos DIN A3).

Análisis crítico del proyecto: de 0 a 3 puntos

Detección de las principales dificultades: de 0 a 5 puntos

Planteamiento global de los trabajos: de 0 a 17 puntos

- De 0 a 5 puntos- Grado de acercamiento y conocimiento del ámbito en el que se llevarán a cabo los trabajos (máximo 2 hojas DIN A4 por ambas caras, tamaño de letra mínimo 10)

- De 0 a 5 puntos- Estudio de reducción de afecciones a las circulaciones peatonales (máximo 2 hojas DIN A4 por ambas caras, tamaño de letra mínimo 10, y dos planos DIN A3)

- De 0 a 10 puntos - Programa de trabajos y programación propuesta mediante diagrama de Gantt. Justificación de los rendimientos asociados a cada operación, con los plazos parciales y totales y los medios humanos y materiales ofertados. (máximo 1 DIN A 3 en cara única (Diagrama de Gantt) y 3 hojas DIN A4 por ambas caras, tamaño de letra mínimo 10)

Programa de trabajos propuesto: de 0 a 5 puntos

Justificación de los rendimientos: de 0 a 2 puntos

Coherencia entre programa de trabajos y rendimientos: de 0 a 3 puntos

7. Calificación de documentos y apertura de proposiciones.

Antes de proceder a la apertura de las proposiciones, la Mesa procederá a la clasificación de la documentación recibida en el sobre 1 y, en caso de que se advirtieran defectos materiales en la misma, la Mesa podrá conceder un plazo de tres días hábiles para la subsanación de los mismos por parte de la licitadora.

La Mesa de Contratación procederá a la apertura de proposiciones en el Ayuntamiento (plaza San Martín Agirre, 1) el cuarto día hábil desde la finalización del plazo de presentación de las mismas, a las 11:00 horas.

En dicho acto público se procederá a abrir exclusivamente los sobres 2 de las proposiciones admitidas. Posteriormente, se remitirán las proposiciones admitidas a los Servicios Técnicos municipales para su valoración conjuntamente con la empresa redactora del proyecto técnico de ejecución, de acuerdo a los criterios de valoración establecidos en el presente pliego.

El mantenimiento de esta convocatoria inicial o las modificaciones que puedan darse se publicarán en el Perfil de Contratante (www.bergara.eus), aunque podrá utilizarse cualquier otro medio que se considere adecuado para su notificación.

Una vez valoradas las ofertas recogidas en el sobre 2, la Mesa de Contratación, también en acto público, procederá a la apertura del sobre 3 de las proposiciones (la oferta económica). La convocatoria para dicho acto también se dará a conocer en el Perfil de Contratante (www.bergara.eus), aunque se podrá utilizar cualquier otro medio que se considere oportuno para su notificación.

La mesa de contratación tendrá la siguiente composición:

PRESIDENTE:

· Quien ostente la Alcaldía-Presidencia del Ayuntamiento de Bergara, o persona en quien delegue.

VOCALES:

- Primer/a Teniente de Alcaldía, o persona en quien delegue.
- El Interventor, o persona en quien delegue.
- La Secretaria del Ayuntamiento, o persona en quien delegue.

SECRETARIA

- La Secretaria de la Corporación, o persona en quien delegue.

Podrán asistir a las reuniones de la Mesa las personas con responsabilidad técnica en el Ayuntamiento que la Mesa solicite para realizar funciones de asesoramiento. La Mesa podrá a su vez solicitar todos los informes técnicos que crea convenientes.

8. Adjudicación

El plazo máximo para efectuar la adjudicación será de 4 meses a contar desde el siguiente a la apertura de las proposiciones.

El órgano de contratación requerirá al licitador que haya presentado la oferta más ventajosa para que, dentro del plazo de diez días hábiles, a contar desde el siguiente a aquél en que hubiera recibido el requerimiento a que realice las actuaciones que se detallan a continuación:

1. Constituir una póliza de responsabilidad civil de al menos 300.000 €.
2. Constituir la garantía definitiva correspondiente al 5% del importe de adjudicación excluido el I.V.A. La fianza podrá depositarse en cualquiera de las formas contempladas en el art. 96 del Texto Refundido de la Ley de Contratos del Sector Público.
3. Presentar copia compulsada del CIF y último justificante del pago del Impuesto de Actividades Económicas.

El alta en el Impuesto de Actividades Económicas deberá de ser tal que permita ejercer la actividad en Bergara.

4. Presentar certificación de Hacienda y de la Seguridad Social, afirmando que la empresa está al corriente de sus pagos.
5. Presentar documentación acreditativa de estar al corriente respecto a sus obligaciones para con este Ayuntamiento.

El órgano de contratación requerirá al adjudicatario para que formalice el contrato en plazo no superior a cinco días a contar desde el siguiente a aquel en que

hubiera recibido el requerimiento siempre y cuando haya presentado la documentación indicada y haya depositado la fianza definitiva establecida.

En caso de que no se adjudicase el contrato a la empresa licitadora que hubiera presentado la oferta mas ventajosa por no haber cumplido ésta las condiciones establecidas, la Administración, antes de realizar una nueva convocatoria, podrá enviar un requerimiento a la empresa licitadora siguiente, de acuerdo con el orden en que se hayan clasificado las ofertas, para que en el plazo de 5 días hábiles realice las actuaciones anteriormente indicadas.

La adjudicación se realizará en el plazo de cuatro meses a contar desde el día siguiente al de la apertura de las proposiciones, Este plazo se ampliará, al amparo de lo previsto en el art. 161.3 del Texto Refundido de la Ley de Contratos del Sector Público, en quince días hábiles cuando sea necesario seguir los trámites establecidos en el art. 152.3 del Texto Refundido de la Ley de Contratos del Sector Público para cuando se identifique una o varias proposiciones que puedan ser consideradas desproporcionadas o anormales.

La declaración del carácter desproporcionado o anormal de las ofertas requerirá la previa audiencia de la empresa/s licitadora/s que las hayan presentado y el asesoramiento técnico del servicio correspondiente.

En este caso, el Órgano de Contratación, a la vista de la justificación efectuada por la empresa licitadora y de los informes solicitados, acordará la adjudicación a favor de la proposición más ventajosa si en opinión de la Administración cuenta con la capacidad de realizar los trabajos adecuadamente; en caso contrario se realizará la adjudicación a favor de la proposición que no resulte desproporcionada o anormal.

Al amparo de lo previsto en el artículo 155.2 del Texto Refundido de la Ley de Contratos del Sector Público, en caso de renuncia a la celebración del contrato o desistimiento de este procedimiento, la compensación de los gastos que la licitación haya ocasionado a las empresas licitadoras será fijada por esta Administración previa audiencia y justificación de aquéllos.

El contrato se perfeccionará mediante firma del mismo en el plazo indicado en la notificación de la adjudicación.

En el caso de falta de formalización del contrato por causas imputables a la empresa adjudicataria, el Ayuntamiento podrá acordar la resolución del mismo, previa audiencia de la interesada, y ésta deberá de indemnizar los daños y perjuicios causados.

9. Duración del contrato y ejecución de las obras

- 9.1 La duración del contrato se fija entre la fecha de notificación del acuerdo de adjudicación definitiva de las obras y la devolución de la fianza definitiva.
- 9.2 El plazo de ejecución de las obras finalizará (incluidas las obras de mejora, en su caso) en el plazo de dos meses desde la firma del acta de replanteo.

- 9.3 La comprobación del replanteo de las obras se realizará dentro del plazo de 15 días a partir de la formalización del contrato, por el representante de la empresa ejecutora, por el director de las obras o facultativo designado por el Ayuntamiento de Bergara. La empresa adjudicataria deberá presentar en el Ayuntamiento, antes del inicio de las obras, la comunicación referente a la apertura del centro de trabajo y el nombramiento de recurso preventivo.
- 9.4 El adjudicatario deberá sufragar la realización de un cartel publicitario de la obra. El expresado cartel lo deberá realizar siguiendo las directrices establecidas por los servicios técnicos municipales.

10. Realización e inspección de las obras

- 10.1 Las obras se realizarán con estricta sujeción a este pliego de cláusulas administrativas particulares y al proyecto que sirve de base al mismo y conforme a las instrucciones que, en interpretación de éste, diera al contratista por escrito la dirección de obra, que serán de obligado cumplimiento por el contratista.
- 10.2 Será de cuenta del contratista la responsabilidad derivada de todos los daños, perjuicios y accidentes de cualquier naturaleza que sean ocasionados en la ejecución de las obras, extinguiéndose únicamente esta responsabilidad cuando haya expirado el plazo de garantía de la obra.
- 10.3 El Ayuntamiento de Bergara se reserva la facultad de inspeccionar y vigilar el curso de las obras a través de sus técnicos.

11. Abono de las obras y revisión de precios

- 11.1 El contratista adjudicatario tiene derecho al abono de las obras que realmente ejecute, con arreglo a los precios convenidos y con sujeción al proyecto técnico aprobado al efecto y a sus modificaciones autorizadas por el órgano contratante.
- Así, el contratista expedirá certificaciones de obra que, previo dictamen favorable de la Comisión Informativa de Urbanismo, serán aprobadas por el órgano competente. El abono se realizará durante los 30 días posteriores.
- 11.2 La ejecución de las obras se realizará a riesgo y ventura del contratista, y éste no tendrá derecho a indemnización por causa de pérdidas, averías o perjuicios ocasionados en las obras sino en los casos de fuerza mayor y siempre que no exista actuación imprudente por su parte.
- 11.3 No cabrá la actualización de los precios.

12. Plazo de garantía y devolución de la fianza

Una vez concluidas las obras, se procederá a la recepción de las mismas, de acuerdo con el artículo 235 del Texto Refundido de la LCSP, estableciéndose un plazo de garantía de 12 meses para su posterior comprobación. Una vez aprobada la comprobación, se procederá a la devolución del aval constituido.

13. Prerrogativas de la Administración y Jurisdicción competente

Dentro de los límites, y con sujeción a los requisitos y efectos señalados en la Ley de Contratos del Sector Público, el órgano de contratación ostenta la prerrogativa de interpretar los contratos administrativos, resolver las dudas que ofrezca su cumplimiento, modificarlas por razones de interés público, acordar su resolución y determinar los efectos de ésta.

Los acuerdos correspondientes pondrán fin a la vía administrativa y serán inmediatamente ejecutivos.

En estos casos se dará audiencia al contratista.

14. Penalizaciones

Cuando el contratista, por causas imputables al mismo, hubiera incurrido en demora respecto al cumplimiento del plazo total, la Administración podrá optar indistintamente por la resolución del contrato o por la imposición de 46,74 € diarios de penalización por cada día de retraso en la entrega de las obras.

Cuando las penalizaciones por demora alcancen un tanto por ciento múltiplo de cinco respecto al importe del contrato, el órgano de contratación estará facultado para proceder a la resolución del mismo o acordar la continuidad de su ejecución con imposición de nuevas penalidades.

15. Medidas de seguridad

El contratista está obligado a adoptar las medidas de seguridad y salud recogidas en el proyecto, y en cualquier caso las que las disposiciones vigentes determinen. Asimismo, adoptará todas las medidas de seguridad que le imponga la dirección facultativa, de cara a evitar posibles daños a terceros.

16. Subcontratación

1. La empresa contratista podrá concertar con terceros la realización parcial de la prestación, sin que las prestaciones parciales que la empresa adjudicataria subcontrate con terceros puedan exceder del 50% de las obras.

La celebración de los subcontratos estará sometida al cumplimiento de los requisitos exigibles de conformidad con el apartado 2 del artículo 227 del TRLCSP.

2. En caso de incumplimiento de las obligaciones establecidas en el artículo 227.2 TRLCSP será de aplicación lo dispuesto en los apartados 3 y 4 del mismo artículo.

3. Los pagos que la empresa contratista realice a las empresas subcontratistas deberán ajustarse a lo dispuesto en el artículo 228 del TRLCSP.

17. Régimen jurídico

Para los supuestos no previstos en el presente pliego, serán de aplicación las siguientes leyes y normativas:

- Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local; y Real Decreto Legislativo 781/1986, de 18 de abril, por el que se aprueba el Texto Refundido de las Disposiciones Legales vigentes en materia de Régimen Local, siempre que no entre en contradicción con la Ley de Contratos del Sector Público.
- Real Decreto Legislativo 3/2011, de 14 de noviembre, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley de Contratos del Sector Público.
- Real Decreto 817/2009, de 8 de mayo, por el que se desarrolla parcialmente la Ley 30/2007, de 30 de octubre, de Contratos del Sector Público.
- Real Decreto 1098/2001, de 12 de octubre, por el que se aprueba el Reglamento General de la Ley de Contratos de las Administración Pública.
- En su defecto, regirán las disposiciones del derecho administrativo y, de ser necesario, las disposiciones del derecho privado.

18. Causas de Resolución del contrato

Constituyen causas de resolución del contrato de obras las establecidas en los artículos 223 y 237 del Texto Refundido de la Ley de Contratos del Sector Público.

19. Cumplimiento de los criterios lingüísticos municipales.

La empresa adjudicataria deberá cumplir los criterios lingüísticos que el Ayuntamiento de Bergara tiene establecidos en el Plan para la Promoción del Uso del Euskera, especialmente en lo que respecta al paisaje lingüístico (rótulos, carteles, informaciones públicas,...).

Por tanto, dichos elementos se colocarán en euskera acompañados de pictogramas, cuando mediante el pictograma se entienda el mensaje. Se pondrán, asimismo, en euskera cuando el mensaje sea de por sí entendible: léxico similar en euskera y castellano, etc.

Cuando no se den los dos casos anteriores, se colocarán en bilingüe (euskera y castellano) dando prioridad al euskera, tanto con la ubicación como con las medidas.

Asimismo, se deberá cuidar la corrección de los textos en euskera, para lo cual se podrá solicitar asesoramiento en el Servicio Municipal de Euskera.

La lengua de trabajo habitual en el ayuntamiento es el euskera, de modo que las relaciones administrativas entre la empresa contratada y el ayuntamiento se harán normalmente en euskera, tanto las orales como las escritas.

La Oficina Técnica Municipal y, si fuera preciso, el Servicio de Euskera se responsabilizarán de explicar los pormenores relacionados con estos criterios lingüísticos, así como de realizar el seguimiento de su cumplimiento.

20. Cumplimiento de las condiciones especiales de carácter social

Este contrato se halla sujeto al cumplimiento de las disposiciones legales, reglamentarias y convencionales vigentes en materia laboral, seguridad social, y seguridad y salud en el trabajo y, en particular, al último texto existente en cada momento del Convenio Colectivo de la Construcción y Obras Públicas de Gipuzkoa publicado en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

La empresa adjudicataria deberá presentar previamente al inicio de las obras la relación de los trabajadores que van a tomar parte en el ejercicio de las mismas, así como los miembros que corresponden a las empresas subcontratistas y deberán acreditar que se acogen al Convenio Colectivo de la Construcción y Obras Públicas de Gipuzkoa.

ANEXO I

D/Dña _____,
con domicilio en _____ y
DNI n° _____ (adjunta copia), en nombre y representación de
_____, con CIF n° _____
(acredito la personalidad jurídica de la empresa y su representación mediante acta notarial
adjunta),

EXPONE

PRIMERO: Que conoce el pliego de cláusulas administrativas particulares y el proyecto técnico de la presente licitación referente a la ejecución de las OBRAS DE LA TERCERA FASE DE CONEXIÓN DE LOS VERTIDOS DE LA PLAZA FRAISKOZURI A LA RED GENERAL DE SANEAMIENTO, y acepta su contenido, comprometiéndose a su ejecución acorde a los mismos, por el importe de _____, más _____ (correspondiente al IVA) (en cifras y en letras).

Asimismo, DECLARO BAJO JURAMENTO:

- a) Que la oferente se halla al corriente de sus obligaciones tributarias y de la Seguridad Social.
- b) Que no se halla incurso en causa alguna de prohibición establecida en el art. 60 del Texto Refundido de la Ley de Contratos del Sector Público y tiene capacidad jurídica y medios suficientes para realizar las obras objeto del presente pliego.
- c) Que en caso de resultar adjudicataria, realizará las obras con estricta sujeción en todo a los requisitos y condiciones de los pliegos aprobados.

(fecha y firma del proponente)